2009-VII-07
Número **278.** zenbakia

# astekaria

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

## EDITORIALA

### Gezurtero

**Hitzetatik ekintzetara amildegi sakon bat egon daitekeela makina bat aldiz erakutsi digute arduradun politikoek. Beraz, oraingoan ere ez gaitu harritu Zapatero jaunak Garoñako zentral nuklearrari buruz hartu duen erabakia. Hauteskundeetan indar nuklearrekiko iragarri zuen konpromiso tinkoari muzin egitea gutxi balitz, Garoñaren ustiaketa 2013 urtera arteko luzatzeko erabakiak beste gobernu berri baten eskuetan –agian eskuinagokoa oraindik– jarriko du. Sinesgarritasunik ez du Zapatero jaunak honelako erabakia hartzerakoan.**

**Erabaki honen atzean, iritzi publikoari egindako iruzurraz aparte, erabat biluzturik, bere naturaltasun osoan, ageri da botere politikoak eta botere ekonomikoek duten burdinazko ituna. Makina gaietan gobernuaren bidelagun diren patronalak eta sektore estrategikoen ugazabek ere ondo lotua dute euren arteko konplizitatea. Kasu honetan, aginte politikoa interes ekonomikoen nahietara makurtu da eta hauek atera dira garaile, gizartearen jende gehienak eta ingurugiroak kalteturik ateratzen diren bitartean. Ezin dugu ahaztu zentral nuklear hau ez dela beharrezkoa, eta bestetik oso arriskutsua eta zikina dela.**

**Erabakia justifikatzeko, eta bere burua zuritu nahian edo, emandako arrazoia guztiz onartezina da. Aurpegia behar da gero esateko, enplegu arrazoiak direla medio, lanpostu alternatiboak sortzeko denbora eta plan bat behar dela. Eta non egon dira orain arte, bada? Duela hamar urtetik ez al zen akaso jakina egungo data iritsiko zela eta eskualdearen garapen ekonomikorako behar besteko baliabideak martxan jarri behar zirela? Zapateroren erantzukizuna oso handia da gai honetan eta ez du balio inongo aitzakiarik.**

**Gehiengoaren nahiari bizkarra eman eta, energia berriztagarriak indartu beharrean, nuklearraren alde eginiko apustuak zein nolako erabakiak espero ditzakegun aurrerantzean ere iragartzen digu presidenteak. Zapatero gezurtero!**




**ELAk bilkura egingo du enpleguaren defentsan uztailaren 15ean Eusko Jaurlaritzaren egoitzaren aurrean**

# ENPLEGU SUNTSIKETARI EZ!

**Langabezia datuek agerian uzten dute ematen ari den enplegu-suntsiketa. INEk kaleratzen duen Biztanleria Aktiboaren Inkestak jasotzen duenez, 2009ko lehen hiru hilabeteetan 36.900 lanpostu galdu dira Hego Euskal Herrian. Egoera larria da oso. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak enpleguaren aldeko erabakirik hartu gabe jarraitzen du. Baina, are eta okerragoa dena: krisi egoera honetan patronalaren eskutik joatea erabaki du. Horretarako, besteak beste, patronalak unean-unean egin nahi dituen enplegu-xantaia guztiei babesa ematen die. Enplegu Erregulazio-Espedienteak kudeatzeko orduan duen jarrerak primeran erakusten du hori guztia. Egoera hau salatzeko ELAk bilkura egingo du uztailaren 15ean Lakuan, ozen esateko 'Enplegu suntsiketari, ez!'.**

Negoziazio kolektiboko arduradun Joseba Villarrealek azpimarratzen duenez, protesta ekintzaren helburua Eusko Jaurlaritzak –eta bereziki Lan Sailak– duten jarrera salatzea izango da. "Egungo egoerari aurre egiteko orduan eskutik doaz Jaurlaritza eta patronala. Lopezen gobernuak patronalari eskatzen duen guztia ematen dio, eta soilik ugazaben interesei begira dihardute".

Enplegu Erregulazio-Espedienteen inguruan Lan Sailak egiten duen kudeaketa da honen guztiaren adibiderik argienetakoa. "Berdin zaie enpleguarekin zer gertatzen den. Akordiorik gabe heltzen diren Enplegu Erregulazio-Espedienteak onartzen jarraitzen dituzte, patronalaren gehigarri soila bailiran. Erabakiak hartzeko orduan ez dituzte kontutan hartzen langileon beharrak, soilik patronalaren unean-uneko interesak. Zentzu honetan, aurreko Jaurlaritzak egiten zuen gauza bera egiten du egungoak. Langileontzat, lehengo lepotik burua".

Egoera kezkagarri honen aurrean mobilizatzea beste aukerarik ez du ikusten Joseba Villarrealek. "Tinko eutsi behar zaio enpleguaren defentsaren aldeko borrokari. Langileon aurkako neurriak har-tzen jarraitzen badute, aurrez aurre izango gaituzte".




**15 DE JULIO 11:00 MANIFESTACIÓN (PALACIO EUROPA, GASTEIZ)**
**11:30 MITIN (LAKUA, FRENTE A LA SEDE DEL GOBIERNO VASCO)**
**ENPLEGU SUNTSIKETARI EZ!! GOBIERNO Y PATRONAL VAN DE LA MANO**

# AMAIA AIERBE SUSTITUYE A ALAZNE ALONSO EN EL COMITÉ EJECUTIVO

El Consejo Nacional de ELA –máximo órgano entre Congresos–, celebró el jueves 2 de julio en Donostia una reunión extraordinaria para proceder a cubrir la vacante que dejará en el Comité Ejecutivo la responsable de las áreas de Políticas de Género, Jóvenes y Salud Laboral, Alazne Alonso, quien por motivos personales ha solicitado su relevo.

A propuesta del Comité Nacional se ha adoptado la decisión de incorporar a Amaia Aierbe al Comité Ejecutivo. Amaia Aierbe Beloqui (Zumarraga, 1965) ha desempeñado diversas responsabilidades en el sindicato desde su incorporación a los servicios jurídicos de ELA en 1989. En el 2001 pasó a ocupar la Secretaría General de la Federación de Enseñanza y dos años más tarde asumió la responsabilidad de Organización en la Federación de Servicios Públicos-Gizalan.

Amaia Aierbe será la responsable de los servicios jurídicos. Por su parte, Leire Txakartegi cambia de funciones, ocupando las áreas de Políticas de Género, Jóvenes y Salud Laboral; además, mantiene la responsabilidad de euskera.



### Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, denuncia que el Departamento de Trabajo sigue aprobando los EREs sin acuerdo sindical

# "GOBIERNO VASCO Y PATRONAL VAN DE LA MANO"



El próximo 15 de julio ELA ha convocado una concentración ante la sede del Gobierno Vasco en Lakua para denunciar la supeditación de las políticas de empleo a los intereses de la patronal, que obtiene de las instituciones todo aquello que desea. Según Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, la administración vasca da cobertura a la patronal para llevar a cabo los ajustes de empleo que desea en cada momento.

"La aprobación de los Expedientes de Regulación de Empleo sin acuerdo previo con los sindicatos es un ejemplo de esta política antisocial. Desde el Gobierno Vasco se está gestionando la crisis mirando exclusivamente a los intereses de la patronal, con un importante incremento del desempleo".

**-¿Por qué una concentración ante el Gobierno Vasco?**

-Es una concentración en contra de la destrucción del empleo y para denunciar la rendición del Gobierno Vasco a los intereses de la patronal. El Departamento de Trabajo –no olvidemos, dirigido por la consejera del PSE-EE Gemma Zabaleta– tiene una gran responsabilidad en la destrucción del empleo y en el aumento de la eventualidad.

Están gestionando la crisis de la mano de la patronal, sin importarles lo que pase con el empleo. Están mirando exclusivamente a los intereses de la patronal, sin reparar en las consecuencias que su política tiene en el empleo, en los trabajadores y trabajadoras que tienen que sufrir los continuos chantajes de una patronal que tiene todos los instrumentos para ajustar las plantillas como quiere.

**-No obstante, desde el Departamento de Trabajo se dice todo lo contrario. Es más, la consejera Gemma Zabaleta destaca que se están mirando con lupa los expedientes.**

-Lo que está sucediendo no se corresponde con estas declaraciones. El Departamento de Trabajo está haciendo lo mismo que sus antecesores. Está aprobando los expedientes de regulación, cuenten o no esos EREs con acuerdo sindical. No confrontan con los empresarios. Entre la clase trabajadora se ha extendido la idea de que no importa la opinión de los sindicatos, que la decisión está tomada ya de antemano. No son unos incompetentes, son unos mentirosos.

Esto es muy grave, porque en muchos casos se impone a los trabajadores y trabajadoras un expediente con el que no están de acuerdo. Cuando se presenta un ERE y no hay acuerdo, la patronal sabe que cuenta con el total apoyo del Departamento de Trabajo, lo que refuerza su posición de chantaje e imposición.

**-En los últimos meses se han sucedido los expedientes de regulación. ¿Cuál es la situación?**

-Seguimos sin tener una información exacta de los expedientes que se han presentado. El Departamento de Trabajo sigue escondiendo la información y los datos que se hacen públicos son parciales e interesados. En esto no se diferencian en nada con el anterior gobierno.

Estamos a las puertas de una nueva fase. Los primeros expedientes eran de regulación, pero estamos ahora se están presentando expedientes con rescisiones de contratos.

Nosotros vamos a hacer todo lo posible para que no haya despidos, vamos a ser un baluarte contra los expedientes de rescisión de empleo. Otros sindicatos van a una mesa de negociación para dar cobertura a esta política de destrucción masiva de empleo.

Tenemos que defender con más fuerza que nunca, si cabe, el empleo. Para ello son necesarias las movilizaciones como la del día 15. Movilizaciones que se tienen que extender a las empresas y comarcas y al conjunto de Hego Euskal Herria.

El mensaje que queremos transmitir a nuestra militancia es muy claro. No estamos dispuestos a aceptar el chantaje que sufre la clase trabajadora. Que quede claro, gobiernos y patronal nos tendrán enfrente en nuestra lucha por la defensa del empleo. El 15 de julio, nos vemos en Lakua.

*"Jaurlaritzak ez du hartu patronalaren interesen aurkako neurri bakar bat ere ez; elkarrekin doaz"*

## BEHIN-BEHINEKOTASUNA, ENPRESARIEN ESTRATEGIA

ELAk *Behin-behineko lana, enpresarien estrategia bai hazkunde-garaian, bai krisialdian* txostena aurkeztu zuen iragan astean. Ikerketak behin-behineko kontratazioak langileengan dituen ondorio kezkagarriak aztertzen ditu: enplegu-suntsiketa, soldata-maila txikiagoak, pobrezia-tasa handiagoa, lan ezbehar-kopuru altuagoa… Esaterako, eta adibide soil bat jartze aldera, 2009ko lehen hiru hilabeteetan eguneko 342 behin-behineko lanpostu galdu dira Hego Euskal Herrian.

Hauek dira, puntuz puntu, behin-behinekotasunaren inguruko txostenak jasotzen dituen ondorioak:

1. Enpresariak behin-behinekotasunaz baliatzen dira etekinak ugaltzeko, eta enpresetan duten erabaki-ahalmena zabaltzeko.
2. Behin-behinekotasunaren ondorioak oso txarrak dira langileentzat:
   - Norberaren bizitza-proiektua modu duinean egin ahal izatea erabat baldintzatzen du.
   - Krisi ekonomikoaz baliaturik, behin-behineko kontratudunak dira lehenengo kaleratzen dituztenak, ez baitago arrazoitu beharrik, eta kalte-ordaina, izatekotan, hutsaren hurrengoa izaten da.
   - Behin-behineko kontratudunek soldata txikiagoak jasotzen dituzte, langile finkoek baino.
   - Pobrezian sartzeko arriskua handiagoa da behin-behineko kontratua dutenentzat eta kontraturik ez dutenentzat.
   - Lan-ezbeharrak izateko arriskua ere handiagoa da behin-behineko kontratua dutenentzat.
   - Behin-behinekotasunak bereziki eraginpean hartzen dituen gizarte-taldeak emakumeak, gazte jendea eta etorkinak dira.
3. Onartezina da krisi ekonomikoaz baliatzea lan-prekarietatea areagotzeko, bai enpresetan, bai lan-erreformen bidez.

***Oharra: Txosten osoa ELAren web orrian eskuratu daiteke***



**Manu Robles-Arangiz Fundazioa Institutuak eta UNED-Bergarak antolaturik 'Krisia: irtenbideak eta erantzun sindikalak' ikastaroa egin zen uztailaren 2an eta 3an Donostian. Aurten ere izen handiko adituek hartu zuten parte jardunaldietan; horien artean Juan Torres Lopez eta Asbjørn Wahl.**

MANU ROBLES-ARANGIZ INSTITUTUA

UNED BERGARA

### Asbjørn Wahl, Udaletxeetako Langileen Norvegiako sindikatuaren aholkularia

# "BOTERE KONTUA DA KAPITALAREN ETA LANGILEON ARTEKO GATAZKA"



Itun sozialak Europan izan duen bilakaera aztertu zuen bere hitzaldian Asbjørn Wahlek. "Itun soziala ez da inoiz langile mugimenduaren xede gisa definitu; garapen historiko baten emaitza da. Posible izan zen langileen eta kapitalaren arteko indar koerlazio aldaketa handia izan zelako: Errusiar iraultza, mendebaldeko langileen hamaika mobilizazio eta borroken ostean sortu zen sindikalgintza indartsua, hirugarren munduko askapen mugimendu sendoa, Bigarren Mundu Gerra osteko ekonomia kapitalistak izan zuen hazkunde ekonomiko luze eta egonkorra… Horiek guztiak, batera, aurrebaldintza oso zehatzak izan ziren eta guztiek posible egin zuten klase arteko konpromisoaren aldi egonkor samar bat sortzea 70. hamarkada arte".

Asbjørn Wahlek azpimarratzen duenez, elkarrizketa sozialak bere kabuz ez du inolako emaitzarik ematen. "Langileon eta kapitalaren arteko gatazka botere-kontu soila da. Aipatu dugun testuinguru historiko horretan itun sozialak ez zuen hobekuntzarik ekarri bere izate hutsagatik; langileon indarra eta indar korrelazio orekatua izan ziren langileon eskubideen aurrerakuntza eta hobekuntza bideratu zuten faktoreak. Oso sinplea da. Sindikalgintza indartsu eta aldarrikatzailea badago, langileak antolatzen eta mobilizatzen badira, gauzak lortu litezke, aurrera joateko moduan geundeke. Bestela, indarrik gabeko langileria eta sindikatuekin, jai daukagu".

Azken 20 urteetan indar neoliberalen eraso ikaragarri bati aurre egin behar izan diogu. Indar kapitalistek erasoari ekin diote, eta langileen eta kapitalaren arteko indar koerlazioan aldaketa handia ikusi dugu. Langileen eta kapitalaren arteko gerra osteko itun soziala hautsi egin da. Hori guztia horrela izanda, klase arteko konpromiso berri baterantz, edo itun sozial baterantz jotzea, gaur egun ditugun botere baldintza askoz ere okerragoetan, nahiko engainagarria dela uste du Wahlek.

"Helburua itun sozialetik eta ongizate estatutik haratago joatea izan behar luke. Politika neoliberalak berriro ezartzeko aurrebaldintza materialak, kapitalismoa kasu, desagerrarazteko moduko gizarte baten eraldaketak bakarrik babestuko ditu langile jendearen interesak. Sozialismoak bakarrik eskain dezake hori".

Europako langile mugimenduaren historia aztertuta, Wahlek argi du zein den bidea. "Borroka soziala ezinbestekoa da ongizate estatua mantentzeko. Bigarren Mundu Gerraren osteko urteetan langileen eskubideak nabarmen hobetu baziren gizarte borrokari esker izan zen. Estatuek ez zuten atzera egin euren planteamenduetan nahi zutelako, euren burua behartuta ikusi zutelako baizik. Langile mugimenduaren indarra izan zen gakoa".

#### ITUN SOZIALAREN PORROTA

Iragan mendeko 70. hamarkadan mendebaldeko kapitalismoa astindu zuen krisitik hainbat irakasgai atera beharko genituzkeela dio Wahlek. "Krisialdien ondorioz indar kapitalistek erasoari ekin zioten. Horretarako langileen eskubideei eraso egin zieten, batez ere soldatei eraginez eta gastu publikoa murriztuz. Gertakari horiek ustekabean harrapatu zituzten sindikalgintza eta langile mugimendu desradikalizatu eta despolitizatua. Ugazabak, euren burua indarturik ikustean, askoz ere erasokorragoak bihurtu ziren negoziazio mahaian. Sindikatuetako buruzagi gehienak, klase arteko konpromisoan eta bake sozialaren inguruan hezitakoak zirenez, ez zeuden inola ere prestatuta eraso horiei aurre egiteko. Burokrazia sindikala baretua zegoen, sindikalgintza defentsiban egotera behartu zuen, eta herrialde askotan langile askok beren sindikatuak utzi zituzten, beren interesak defendatzeko gai ez zirela ikusten baitzuten. Hori da Europa mendebaldeko langile mugimenduaren historiak utzi digun ikasgaia. Langile mugimendua indartsu egon denean, langileen eta kapitalaren arteko lehian indar korrelazioa zegoenean, langile jendea sindikalgintza aldarrikatzailearen baitan bildu zenean, gure eskubideetan aurrerapausoak eman ziren. Sindikalgintza itun sozialaren atzaparretan erortzen denean, ideologia eta helburu bihurtzeraino, kapitalak langileon eskubideak eraso ditu, langileria eta gizarte eredua ataka larrian jarriaz".

### Juan Torres López, catedrático de Economía Aplicada en la Universidad de Sevilla

# "HAY QUE EXPLICAR A LA GENTE LO QUE ESTÁN HACIENDO, HAY QUE HACER QUE SE ENRABIE"



Durante su intervención Juan Torres López insistió en la necesidad de hacer saber a la gente lo que tanto bancos como gobiernos vienen haciendo las últimas décadas y ha dado origen a la mayor crisis económica y social desde los años 30. Dejó claro que no se trata de una crisis "accidental", resultado de que "en EE.UU. unos cuantos se han pasado", sino de una crisis del propio sistema económico que es intrínsecamente inestable.

"Los gobiernos han dado todo tipo de facilidades al capital para generar unos enormes beneficios que al no tener ningún control ni vigilancia se han orientado hacia la especulación. Han dejado de financiar la economía productiva y han buscado los mercados que mayores beneficios les producían. No han dudado en especular con la vivienda, la energía, las armas, con los alimentos, empobreciendo al conjunto de la sociedad, dejándola en la calle, destruyendo el medio ambiente y hasta matando. El actual sistema económico se ha convertido en un sistema criminal y las autoridades mundiales son cómplices de ello. A los bancos se les ha dado el monopolio privado de creación de dinero y han multiplicado la deuda hasta hacerla insostenible. Todo el mundo sabía lo que estaban haciendo y no han puesto medidas para impedir el desastre.

La financiación de la economía es un bien público y no puede estar en manos privadas, es necesario el control público de la economía. Hay que reclamar una supervisión mundial y democrática de las finanzas. Los lugares donde se toman las decisiones son espacios opacos a la democracia. Los gobiernos se reúnen a solas con los bancos y los poderes económicos y no dan cuenta de ello. Las decisiones, cada vez en mayor medida, se toman en espacios no representados democráticamente, fuera del control de la ciudadanía. Esta crisis no sólo es económica, es también una crisis ética y democrática. La economía necesita ser civilizada.

Debemos lograr que la gente se enrabie, que sabotee semejante injusticia. La clave no está tanto en los modelos teóricos alternativos, siempre importantes. Ya sabemos lo que hay que hacer, pero los verdaderos cambios suceden cuando se toca el corazón de las personas, cuando se toca la moral. Debemos hacer ver a la gente lo que están haciendo, transmitir aquello que los poderes están tratando de ocultar, debemos concienciar de esta situación inaceptable de sometimiento. A la gente no le gusta lo que está viviendo, quiere otra sociedad, otro modo de vivir. Es por ello que debemos provocar un sabotaje pacífico hacia este sistema, debemos recomponer lazos, tejer redes, reunirnos aquellos que queremos cambiar la situación y reconstruir nuevos espacios de lucha y de vida".

OPINIÓN / IRITZIA

# OCHO MESES EN LA CALLE CONTRA LA DISCRIMINACIÓN



Ocho meses han pasado ya desde que las trabajadoras y trabajadores de Sabeco Errenteria iniciaron una huelga indefinida. Ocho meses de constantes movilizaciones tratando de que sus justas reivindicaciones se oigan. En el origen de esta incesante lucha está la negativa de la multinacional Auchan, propietaria del grupo Sabeco, a aplicar el convenio provincial de Alimentación de Gipuzkoa. Con este convenio, que se aplica al resto de los comercios de la zona, se pasará de cobrar 730 euros mensuales a 1.000 euros con 15 pagas.

En Sabeco Errenteria trabajan 53 personas, de las que 50 son mujeres y el 80% de ellas están contratadas a tiempo parcial. En 2005, cuando se llevó a cabo el proceso de selección del personal, se les comunicó a las allí presentes que ganarían 640 euros pagas incluidas, y de una sala llena de hombres y mujeres sólo permanecieron en la misma tres hombres. Son puestos específicamente diseñados para las mujeres. La fotografía de sectores feminizados, con contrato a tiempo parcial y salarios de usura, se repite en determinados segmentos del mercado laboral, que son precisamente los que tienen condiciones de mayor precarización y discriminación. Este es el sitio que nos tiene asignado a las mujeres el sistema capitalista y patriarcal, que minusvalora nuestro trabajo con el acuerdo de la patronal y las administraciones. Somos mujeres, y, a lo que se ve, debemos ser sumisas y aceptar que nuestro trabajo es subsidiario para la unidad familiar.

Pero resulta que un grupo de trabajadoras se ha plantado y ha dicho que entre personas no todo es aritmética ni formulas calculadas y algunas veces la solidaridad, la justicia y la dignidad tienen más peso. Esto ha supuesto, hasta ahora, ocho meses de huelga indefinida con el supermercado de Errenteria cerrado. Ante la larga duración de este conflicto es obvio que nos surja la siguiente duda: ¿las pérdidas que supone tener un supermercado cerrado y pagando alquiler no pueden cubrir el aumento de salario que les corresponde a las trabajadoras? Es evidente que se trata de un pulso en la correlación de fuerzas entre la patronal y el colectivo de las mujeres trabajadoras. Y la patronal no ha mostrado intención de mover ninguna ficha porque de este conflicto depende en gran medida la estrategia de expandir un modelo de explotación a otros supermercados, inhabilitando los convenios provinciales y aplicando convenios estatales de empresa que recogen pésimas condiciones de trabajo.

Ante este escenario, cabría esperar algún gesto de las instituciones y organismos públicos como Emakunde o la Defensoría, que sacan a la luz guías de los derechos laborales en materia de igualdad de género y llevan a cabo campañas para fomentar la sensibilización social. No lo ha habido. Pero, Sabeco, junto con otros conflictos, son la realidad del día a día que padecemos muchas mujeres y que no se puede ocultar. El día a día de la falta de autonomía como personas y el día a día de las dificultades económicas. Si no cambia esta realidad para las mujeres, de nada nos sirven la igualdad de libro y discurso.

Nos dicen que en esta crisis tenemos que remar en la misma dirección. Que tenemos que renunciar a nuestras reivindicaciones para poder reanimar al enfermo sistema capitalista, y así garantizar los puestos de trabajo. ¿Pero son los sueldos de 730 euros de Sabeco los que nos han llevado a esta situación? Bien saben las trabajadoras de Sabeco que esto no es así. Obviando las razones verdaderas que han originado esta crisis y fomentando la alarma social lo único que pretende la patronal es disciplinar a las trabajadoras y trabajadores para poder seguir con el mismo modelo de explotación y garantizar así sus beneficios.

Pero con la lección de solidaridad y dignidad que nos estáis dando con esta huelga, habéis dejado claro que no hay paz social gratuita. Que la estabilidad social tiene un elemento consustancial que es la justicia social. Sin justicia la única manera que nos queda de afrontar estos ataques es la unión, la organización y la lucha. Gracias por enseñarnos el camino a seguir.

Gora emakume langileon borroka!

**Amagoia Unanue,**
**responsable de género**

## Labur Breves

### ● Ez dago Garoña ixteko asmorik

Espainiako Gobernuak Garoñako zentral nuklearraren bizitza lau urtez luzatzea erabaki du. Erabakiak argi uzten du Zapaterok ez duela Garoña ixteko asmorik. Garoña 2013an itxiko dela esatea ez da sinesgarria, orduan erabakia beste gobernu baten esku izango baita. Beste behin botere politikoa interes ekonomikoen menpe jarri da. Ustiapena berriro luzatzeko erabakiarekin irabazleak Iberdrola eta Endesa dira; galtzaileak herritarrak eta ingurumena.

### ● Gemma Zabaleta autoriza otro ERE sin acuerdo

El Departamento de Trabajo ha autorizado el expediente de Ros Casares de Gasteiz sin acuerdo con los sindicatos. La empresa emplea a 170 personas y la solicitud de ERE es para 80 de ellas durante 112 días. ELA recuerda que la empresa tuvo unos beneficios de 18 millones de euros en el 2007.

### ● Actitud prepotente de la dirección de Ariznavarra

El 30 de junio se celebró una nueva reunión entre la dirección de la empresa Mapfre Quavitae Bizi-Kalitatea y el Comité de Empresa de la Residencia Ariznavarra de Gasteiz. La dirección de la residencia presentó la misma oferta que en octubre del 2008. El comité quiere denunciar la actitud prepotente de la empresa tras más de un año y medio de huelga. "Mapfre no quiere llegar a un acuerdo y pretende que el conflicto se prolongue en el tiempo de manera indefinida".

### ● Aumenta la pobreza en Navarra

En opinión de ELA los datos de la Encuesta de Condiciones de Vida en Navarra que publica el Gobierno de Navarra son muy preocupantes. El informe recoge que cuatro de cada diez hogares llega con dificultades a fin de mes. Desde 1993 hemos asistido a un fuerte aumento de la riqueza, pero su distribución ha sido cada vez más desigual. ELA considera muy grave que pese al aumento de la riqueza no se haya reducido el índice de pobreza.

### ● Más movilizaciones en Iber Leiber

La plantilla de Iber Leiber continúa con las movilizaciones en protesta por la decisión de la multinacional de cerrar la empresa para trasladar la producción a otros centros de trabajo. La empresa dedicada a la forja de aluminio está situada en el polígono de Itziar y cuenta con una plantilla de 80 personas.

### ● Michelin garantiza el empleo de una subcontrata

Tras seis días de huelga los trabajadores de Hermanos Lasa, subcontrata que realiza trabajos dentro de las instalaciones de Michelin en Gasteiz, han conseguido un acuerdo que garantiza la continuidad de todos los empleos, incluido el personal eventual, y sus condiciones salariales. El conflicto surgió cuando Michelin sacó a concurso la realización de ciertas labores indispensables para la actividad de Michelin, que hasta ese momento las realizaba la empresa Hermanos Lasa, con una plantilla de 28 personas.



ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

**Franqueo concertado**
**nº 08/207**